

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**Baliabide fisikoak:** "Sagardoteka"-ren kokalekua izango den industria-nabe bat, beharko ditugun produktuak, altzariak, baxera, makineria (tolarea adibidez).



**Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Jendea kontratatuko dugu sagardotegian eta diskotekan zerbitzari bezela egoteko, edo segurtasun-pertsona izateko. Horrez gain, gutako bakoitzak lan ezberdin bat egingo dugu: Manex eta Iñakik diskotekan zerbitzari moduan egingo dute lan, Jonek sagardotegiko diru kontuak emango ditu eta Markelek berriz, diskotekakoak. Urko sare sozialetaz eta bezeroarekiko harremanaz arduratuko da.



**Finantza-baliabideak:** Gure kasuan pertsona bakoitzak 8000€-ko aportazioa egingo dugu, eta hori izango da hasierako kapitala, baina horretaz gain sagardotekak izango dituen irabaziak edukiko genituzke. Hala ere, printzipioz hasieran 40000€ edukiko genituzke proiektua aurrera ateratzeko.

